

Txindurri txistu eta dantza taldea

Ehun kidetik gora duen talde honek 35 urte bete ditu aurten. Ikastolan eta Lobianon entseatzen dute eta urtean hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, tartean Ermuko Euskal Jaia. Umeentzako matrikula bi urtetan behin zabaltzen dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1975. urtean jaio zen Txindurri Txistu eta Dantza taldea eta urte horretan hasi zen dantzarien fitxak egiten. Aurretik Ikastolako dantza talde bezala funtzionatzen zuen, hainbat gurasok bultzatuta, baina zenbait konturen ostean taldea banatu eta Txindurri jaio zen.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 120 kide inguru gara dantzari eta txistulariak batuta, 8 eta 10 talde ingurutan banatuta. Beste garai batzuetan dantzari gehiago zegoen, 90. hamarkadaren hasieran, esaterako, 200 lagun izatera ere heldu ginen.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure kultura zabaltzea eta jendeari ezagutaraztea.

- Zein maiztasunekin entseatzen duzue eta non?



2010eko Txindurri Eguna

Adinaren arabera, taldeek entseatzeko ordutegi eta lokal ezberdinak dituzte. Txikiek ordubete t'erdi entseatzen dute asteen, normalean Ikastolan. Nagusiek, berriz, 3 ordu entseatzen dute asteen, Lobianon. Hala ere, dantza saioen bat prestatu behar dutenean gehiagotan biltzen dira, asteen 3 edo 4 egunetan. Horrez gain, dantzarako erabiltzen dugun arropa ere, Lobianon gordetzen dugu.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Txindurri Eguna antolatzen dugu apirilean eta baita umeen azken erakustaldia (lehen Zineman egiten zen eta orain plazan). Lehen Ermuko Euskal

Jaia herrian zeuden beste talderekin txandaka antolatzen genuen, baina azken urteetan guk antolatu izan dugu, gainontzeko dantza taldeak desagertzten joan direlako. Santixauetan dantza erakustaldia egiten dugu plazan eta Bizkaiko Dantzari Egunean parte hartzen dugu. Horretaz gain, inguruko herrietako Euskal Jai batzuetan ere parte hartzen dugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure telefonoa 688802577 da, hala ere taldean parte hartu nahi duena edozein erakustalditan hurbildu daiteke gurera. Umeen matrikula, berriz, bi urtetan behin zabaltzen da.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZVYTiK

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78